

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

5234

AGINDUA, 2014ko azaroaren 18koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustategien koadernoak eta beraren erabilera arautzen dituenak.

2004an zehar Europar Batasunak Higienaren Paketea izena eman zitzaion arau-multzoa argitaratu zuen. Haietako bat Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 852/2004 Araudia izan zen, 2004ko apirilaren 29koa, elikadura-produktuen higienari buruzkoa. Haren I. eranskinean ezarri zen abereak hazten eta lehen mailako abere-produktuak ekoizten dituzten enpresek eta landare-produktuak ekoizten edo biltzen dituztenek erregistroak eduki behar dituztela, honakoak jasota: emandako elikagaien izaera eta jatorria, lortutako produktuak, tratamenduak, egindako analisien emaitzak, erabilitako produktu fitosanitarioak eta izandako izurriak edo gaixotasunak, besteak beste.

Beste alde batetik, nekazaritzan aritzeko eta Nekazaritzako Politika Bateratuko zuzeneko laguntzak ordaintzeko, ingurumenaren arloko eta abereen ongizateko betekizun batzuk bete behar direla xedatuta dago Nekazaritzako Politika Bateratuaren arloan honako hauen bidez: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko (EB) 1306/2013 Araudia; Batzordearen 2014ko martxoaren 11ko (EB) 640/2014 Araudi Eskuordetua, eta Batzordearen 2014ko uztailaren 17ko (EB) 809/2014 Araudi Betearazlea.

Halaber, Europar Batasunaren jardute-esparruan, argitara eman ziren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 2009/128/EE Zuzentaraua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko (EE) 1107/2009 Araudia, plagizidak modu jasangarrian erabiltzeko xedeaz. Espainiak irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuaren bidez xedatu zituen arau horiek.

2008ko apirilaren 24an argitaratu zen 2008ko martxoaren 10eko Agindua, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, nekazaritzako ustategien koadernoak eta beraren erabilera arautu dituenak. Ustategien koadernoak indarrean jarrita, eredu bakarra ezarri zen nekazaritzako ustategi guztietarako, nekazaritzakoak zein abeltzaintzakoak izan. 2010eko uztailaren 14ko Aginduak agindu hori aldatu zuen, ureztatzeko ez ezik, ura beste eginkizun batzuetarako erabiltzeko aukera ere sartzeko, eta koadernoaren azalpen-oharrak hobetzeko.

Harrezkeroztik izan diren arauzko aldaketek nahitaezko egin dute koadernoaren edukia eguneratzea. Hori dela eta, ingurumeneko datuak, tratamendu fitosanitarioak eta zoosanitarioak, uztak, eta abeltzaintzako ustategiei buruzko beste hainbat datu gehitu dira.

Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10. artikuluko 9. eta 25. paragrafoetan arlo honetarako xedatutako eskumenaren babesean eman da. Bera prestatzeko kontuan hartu dira Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru-aldundiak, baita nekazaritzaren arloko lanbide-elkarteak ere.

Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatgien koadernoak arautzea.

2. artikulua.— Aplikazio-eremua.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi guztiek izan behar dute ustiatgien koadernoak.

3. artikulua.— Idatzoharrak.

1.— Koadernoan idatzoharrak egin behar dira jarduera, lana edo tratamendua amaitzen dene-tik egutegiko hamabost egun igaro baino lehen, beste xedapen batean epe laburrago bat ezarri ezean.

2.— Agindu honen eranskinean xedatutako kasuetan, idatzohar osoaren edo zati baten orde-z idatzi behar diren datuen frogagiriak txerta daitezke.

3.— Beharrezkoa izanez gero, ustiategiari informazio gehiago eska dakieke laborantza motez, ekoizpen-sistemez, kalitate bereizgarriez, eta abarrez; unerik unera onesten diren ereduak ara-bera.

4. artikulua.— Artapena.

1.— Idatzoharrak inolako aldaketarik gabe gorde behar dira, koadernoaren formatua gorabehera, gutxienez hiru urtean, koadernoan erregistratzen direnetik, beste xedapen batean epe luzeago bat ezarri ezean.

2.— Idatzoharrei dagozkien agiriak ere epe berean gorde behar dira, erantsi behar direla adie-razten den kasuetan.

5. artikulua.— Koadernoaren egitura.

Koadernoak atal hauek izan behar ditu:

1.— Datu pertsonalak eta ustiategiarenak.

2.— Lursailen zerrenda eta ingurumen-datuak.

3.— Lurraren prestakuntza, ereintza edo landaketa, ongarriketa, tratamendu fitosanitarioak, ura-ren erabilera eta lortutako uzta.

4.— Mindaren eta simaurraren maneia.

5.— Lurraren, uraren eta landareen analisia.

6.— Erosketen erregistroa.

7.— Salmenten erregistroa, produktuen eta azpiproduktuen erabilera eta irteera, abereen irteera, eta hildakoak kentzea.

8.— Abereen tratamendu zoosanitarioak, kontrolak eta analisiak.

9.— Abeltzaintzako ustiategiak: mantentze-lana, garbiketa, desinfekzioa eta intsektu- eta arratoi-hiltzea.

6. artikulua.— Koadernoaren formatua.

1.— Ustiategien koadernoaren formatua agindu honen eranskinean finkatzen da; idatziz zein euskarri informatizatuan antola daiteke. Koadernoaren informazioa emateko, bestelako formatuak baimendu daitezke Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren ebazpenen bidez.

2.— Ustiategi bakoitzak bere orriak bete behar ditu, ustiategi motaren arabera; koadernoan bertan agertzen diren oharretan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

3.— Horretaz gain, ustiategi bereziek informazio gehigarria eman behar dute, eraginpeko bera-riazko arauak xedatutakoaren arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da 2008ko martxoaren 10eko Agindua, nekazaritzako ustiategien koadernoak eta beraren erabilera arautu dituenak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak jakinaraziko dio Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioari agindu hau onartu duela.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 18a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA

NEKAZARITZAKO USTIATEGIEN KOADERNOA

URTEA:.....

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

Datu pertsonalak eta ustiategiarenak

1. abizena	
2. abizena	
Izena	
Sozietatearen izena	
NAN/IFK	
Helbidea	
Herria	
Telefono finkoa edota eskuko telefonoa	
Posta elektronikoa	
Ustiategiaren kokalekua	
Ustiategiaren kodea	
Produktu fitosanitarioen aplikatzailearen agiriaren zenbakia	

Ustategiaren kodea:.....
Urtea:.....

USTIATEGIKO LURSAILEN ZERRENDA ⁽¹⁾

[illegible]

(1) Adierazi behar dira ustiategiko lursail bakoitzerako (jabetzakoa zein errentakoa izan) SIGPACeko (nekazaritzako lursailak identifikatzeko sistema geografikoko) identifikazio-datuak (udalerria, poligonoa, lursaila, esparrua), labore-unitatea (batera lantzen diren lursail batzuk); lursailaren azalera eta izena, eta edukitza-erregimena (jabetzakoa, errentakoa).

(2) Adierazi behar da ea lursaila izurrien kudeaketa integratuko sistemaren baten barruan dagoen: nekazaritza ekologikoa (NE), ekoizpen integratua (EI), kudeaketa zentro baten barruko ustiatzea (KZ), izurrien kudeaketa integratua egin beharrik gabekoa (EZ).

(E-7) Izan den neurketa integratua egun berantim gabezia (E-7):
HORREN ORDEZ AZALAREN AITORPENAREN FOTOKOPIA JAR DAITEKE, BARNE HARTUTA USTIATEGIKO LURSAIL GUZTIAK, ETA ZEHAZTUTA ZEIN LURSAIL DAGOEN LABORE-UNITATE BAKOITZAREN BARRUAN (KASUAN KASU) ETA IZURRIAK KUDEATZEKO AHO-KULARITZARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

USTIATEGIKO LURSAILEN INGURUMEN-DATUAK

Ordena- zenbakia / Lursaila (3)	Giza kontsumorako ur-masetatik eta putzuetatik datorren ura hartzeko puntuak				Zona espezifikotako lursailak (4)	
	Lursailaren barruan BAI/EZ	Distantzia metrotan (5)	UTM koordinatuak (6)	Izendapena (7)	Osorik BAI/EZ	Azalera (8)

- (3) Idatzi behar da lursailaren ordena-zenbakia edo identifikazioa, (1) puntuan agertzen den moduan.
- (4) Zona espezifikoak: giza-kontsumorako ura ateratzeko zonak, natur habiten eta basoko espezieen babesguneak.
- (5) Adierazi behar da zenbat metrora dagoen hartunea, baldin eta lursailetik kanpo badago (aurreko zutabea EZ erantzunez gero).
- (6) Adierazi behar dira UTM koordinatuak (datua izanez gero).
- (7) Identifikatu behar dira giza kontsumorako ura ateratzeko erabilitako ur-masak eta putzuak.
- (8) Adierazi behar da, jakinez gero, eraginpeko lursail-azalera (aurreko zutabea EZ erantzunez gero).

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

**ABELTZAINZAKO USTIATEGIAK
AZPIUSTIATEGIEN ZERRENDA**

Kodea:	Espeziea	Ustiategiaren koordinatuak

Adierazi behar da, ustategia osatzen duten azpiustiategiatariko bakoitzerako, zein aberetakoa den eta zein koordinatu dituen.

LURZORUAREN PRESTAKUNTZA

EREINTZA/LANDAKETA

ONGARRIKETA

TRATAMENDU FITOSANITARIOAK

INFORMAZIO OROKORRA

AHOLKULARITZATIK SALBUETSITAKO LABOREAK

AHOLKULARITZAPEKO LABOREAK

UZTA ONDOKO TRATAMENDUAK

URAREN ERABILERA

LORTUTAKO UZTA

LURZORUAREN PRESTAKUNTZA

[illegible]

(9) Zein egunetan egin den lana.

(10) Idatzi behar da zein lursailetan egin den lana: ordena-zenbakia, SIGPAC identifikazioa, edo lursailaren izena edo labore-unitatea (1) puntuan agertzen den moduan.

(11) Zehaztu behar da zein lan den: goldatzea, golde belarriduna igarotzea.

Ustategiaren kodea:.....
Urtea:.....

EREINTZA/LANDAKETA

[illegible]

(12) Zein egunetan egin den ereintza edo landaketa.

(13) Adierazi behar da zein labore den: garia, garagarra, patatak, urazak, piperrak.

(14) Erabilitako barietatea. Genetikoki aldatutako barietatea izanez gero, GEO siglak gehitu.

(15) Erabili den haziak tratamendurik izan badu, idatzi behar da tratamenduaren merkataritzako izena / materia aktiboa, eta erregistro-zenbakia.

(16) Idatzi behar da zein lursailetan egin den ereintza edo landaketa: ordena-zenbakia, SIGPAC identifikazioa, edo lursailaren izena edo labore-unitatea (1 puntuan agertzen den moduan).

(17) Lursail barruko ereintzaren edo landaketaren azalera.

(18) Hektareko zenbat kg hazi edo hazi-unitate erabili den.

ONGARRIKETA KIMIKOA EDO ORGANIKOA

[illegible]

(19) Zein egunetan ongarritu den.

(20) Idatzi behar da zein lursail ongarritu den: ordena-zenbakia, SIGPAC identifikazioa, edo lursailaren izena edo labore-unitatea (1) puntuan agertzen den moduan.

(21) Lursailean zer erein edo zer landatu den.

(22) Ezarri behar da ongarriaren izena, (60) edo (65) puntuetan agertzen den moduan, edo adierazi behar da ustategian bertan sortutako minda edo simaurra den.

(23) Hektareko zenbat kg ongarrri erabili den.

2014ko abenduaren 9a, asteartea

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

TRATAMENDU FITOSANITARIOAK. INFORMAZIO OROKORRA

PRODUKTU FITOSANITARIOEN TRATAMENDUAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONAK EDO ENPRESAK				
Ordena- zenbakia	Izen-abizenak / Zerbitzu-enpresak	IFZ	Ekoi-ze eta operatzaileen erregistro orokorreko zenbakia	Agiri-mota eta -zenbakia (24)
				Aholkularia (BAI/EZ)

(24) O = oinarritzakoa; K = kualifikatua; F = fumigazioa; P = pilotua. Agiriaren zenbakia idatzi behar da.

USTIATEGIAREN BERAREN EKIPOAK PRODUKTU FITOSANITARIOAK APLIKATZEKO				
Ordena- zenbakia	Eki- poaren deskribapena (25)	NMEOko inskrizio- zenbakia (26)	Eskuratzeko data	Azken ikuskapenaren data

(25) Adierazi behar da zein ekipo- edo makina-mota den, markarekin eta modeloarekin batera.

(26) NMEOko (Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean) inskribatzea nahitaezko ez duten ekipoen kasuan, adierazi behar da euren erroldako erreferentzia-zenbakia, kasuan kasu.

USTIATEGIAREN AHOALKULARIA, ELKARTEA EDO AHOALKULARITZA-ERAKUNDEA			
Izen-abizenak	IFZ	Ekoi-ze eta operatzaileen erregistro orokorreko zenbakia	Ustiategi- mota (27)

(27) Izurrien kudeaketa integratuari dagokion ustiategi-mota: nekazaritza ekologikoa (NE), ekoi-ze integratua (EI), ziurtapen pribatua (ZP), nekazaritzako tratamendu integratuko elkarte (ATRIA), aholkularitza lagunduta (AL), izurrien kudeaketa integratua egin beharrik gabekoa (EZ).

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

TRATAMENDU FITOSANITARIOAK. AHOLKULARITZATIK SALBUETSITAKO LABOREAK

[illegible]

(28) Idatzi behar da zein lursailatan egin den tratamendua: ordena-zenbakia, SIGPAC identifikazioa, edo lursailaren izena edo labore-unitatea (1^o) puntuan agertzen den moduan.

(29) Adierazi behar da tratamenduaren data tartea edo data zehatza.

(30) Ordena-zenbakia, tratamendu fitosanitarioen atalean adierazitako informazioaren arabera. Informazio orokorra.

(31) Ordena-zenbakia, tratamendu fitosanitarioen atalean adierazitako informazioaren arabera. Informazio orokorra.

(32) Adierazi behar da ea tratamenduaren eraginkortasuna handia, erdipurdikoa ala txikia izan den.

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

TRATAMENDU FITOSANITARIOAK. AHOLKULARITZAREN GAIKO LABOREAK
LABORE BAKOITZEKO ORRI BAT

LABORE BAKOITZEKO JARDUTE FITOSANITARIOEN ERREGISTROA														LABOREA:.....			
Laborea		Lursaila			Kontrolatu beharreko izurria/gaixotasuna		Esku hartzeko aukera ez-kimikoak			Esku hartzeko aukera kimikoak				Eraginkortasuna (36)			
Espeziea	Barietatea	Ordena-zenbakia / Labore-unitatea (33)	Laboreko azalera (ha)	Tratamenduko azalera (ha)	Izurria / gaixotasuna	Justifikazioa (34)	Jardute-data	Neurri-mota	Neurriaren intentsitatea (35)	Jardute-data	Merkataritza-izena	Erregistro-zenbakia	Dosia: kg/ha				

(33) Idatzi behar da zein lursailetan egin den tratamendua: ordena-zenbakia, SIGPAC identifikazioa, edo lursailaren izena edo labore-unitatea (1) puntuan agertzen den moduan.
(34) Jardutearen justifikazioa: alartzeak gainditzea, eguraldia, eta abar.
(35) Tranpa-kopurua, difusore-kopurua, eta abar.
(36) Esku-hartzearen eraginkortasuna: handia, erdipurdikoa, txikia.
ERANTSI, HALAKORIK IZANEZ GERO, AHOIKULARI TEKNIKOAK SINATUTAKO AHOIKU-GOMENDIO TEKNIKOEN DOKUMENTAZIOA. HALA BADA, TARTEKO BALORAZIOTZAT JOKO DA.

TARTEKO BALIOZKOTZEA
Sinadura:

Aholkularia:
Ekoizle eta operatzaileen erregistro orokorreko zenbakia:
Data:

AZKEN BALIOZKOTZEA
Sinadura:

Aholkularia:
Ekoizle eta operatzaileen erregistro orokorreko zenbakia:
Kanpainaren amaierako data:

Ustategiaren kodea:.....
Urtea:.....

UREZTATZEA

[illegible]

(39) Zein egunetan edo zein data tartetan ureztatu zen.

(40) Idatzi behar da zein lursail ureztatu den: ordena-zenbakia, SIGPAC identifikazioa, edo lursailaren izena (1) puntuari agertzen den moduan.

(41) Lursaillean zer erein edo zer landatu den.

(42) zenbat m^3 ur erabili den hektarea bakoitzeko.

HORREN ORDEZ UREZTATZAILEEN ELKARTEAREN ERREGISTROAREN FOTOKOPIA JAR DAITEKE, BALDIN ETA DATU HORIEK GUZTIAK BADITU

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

URAREN BESTELAKO ERABILERA

Denbora tartea (43)	Uraren erabilera beste jarduera batzuetan (44)	m ³ erabiliak (45)

(43) (45) puntuan adierazitako ur-kontsumoak hartzen duen denbora tartea.
(44) Zein jarduera den (landa-turismoa.).
(45) Ur-kontsumoa m³-tan. **HORREN ORDEZ UR-KONTSUMOAREN FAKTURA JAR DAITEKE.**

LORTUTAKO UZTA

[illegible]

(46) Idatzi behar da zein lursail den: ordena-zenbakia, SIGPAC identifikazioa, edo lursailaren izena edo labore-unitatea (1) puntuari agertzen den moduan.

(47) Laborantza-mota (patatak, zerealak, erremolatxak.).

NONBAIT EMAN IZANAREN ALBARANAK EDO EMATE-ZERRENDAK.

MINDAREN ETA SIMAURRAREN MANEIOA

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

MINDAREN ETA SIMAURRAREN MANEIUA
(Halakorik bada, azpieustiategi bakoitzeko orri bat)

Azpieustiategiaren kodea:.....

Zenbat minda sortzen den (litroak edo m³)

Zenbat simaur sortzen den (kg edo m³)
Ustiategian bertan ongarritzeko erabilitako minda edota simaurra idatzita egon behar izan da lursail bakoitzeko ongarriarekin batera.

USTIATEGITIK ATERATZEA

Data (49)	Produktua (50)	Egoera (51)	Destinoa (52)

- (49) Zein egunetan atera zen minda edo simaurra ustiategitik.
- (50) Zehaztu behar da ea minda ala simaurra den.
- (51) Zehaztu behar da nola atera zen minda edo simaurra (ustiategikoa ez zen kamioi batean, minda-andel batean, simaurra zabaltzeko atoi batean, eta abarretan), eta **erantsi behar da horren egiaztatzea baldin eta ustiategitik kanpoko baliabideez atera bada.**
- (52) Idatzi behar da nora eramango den minda edo simaurra, eta **erantsi behar da heldu izanaren egiaztatzea (hala bada).**

LURRAREN, URAREN ETA LANDAREEN ANALISIA

EGINDAKO ANALISIAK ⁽⁵³⁾

[illegible]

(53) Adierazi behar da, kasuan kasu, zein lursailetan edo labore-unitatetan egiten diren analisiak eta zein egunetan egiten diren.

HONDAKIN FITOSANITARIOEN ANALISIA

[illegible]

(54) Zehaztu behar da zein lagin-mota analizatu den: hostoak, zurtoinak, sustraiak, fruituak.

(55) Azaldu behar da zergatik egin den analisisa: ohiko kontrola, zaintza-programak.

(56) **ERANTSI BEHAR DA ANALISIEN EMAITZEN KOPIA.**

URAREN ANALISIA

[illegible]

(57) Zehaztu behar da nondik hartu den analizatutako ura: putzua, ibaia, eta bakoitzaren kokapena.

(58) Azaldu behar da zergatik egin den analisisa: ohiko kontrola, arazoren baten ondorioa.

(59) **ERANTSI BEHAR DA ANALISIEN EMAITZEN KOPIA.**

EROSKETEN ERREGISTROA

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

USTIATEGIAN DAUDEN PRODUKTUEN INBENTARIOA – DATA:.....

[illegible]

(60) Zehaztu behar da ea ongariak, produktu fitosanitarioak, haziak, abereak elikatzeko pentsuak edota bestelako produktuak diren.

(61) Produktuaren merkataritza-izena (fitosanitarioak, zoosanitarioak), espezieak (haziak), pentsu-mota, eta abar.

(62) Zehaztu behar dira formulazioa (ongarritze kasuan), materia aktiboa (produktu fitosanitarioen edo zoosanitarioen kasuan), edo barietatea eta kategoria (hazien kasuan).

(63) Adierazi behar da kasu bakoitzean zenbat produktu dagoen.

Ustategiaren kodea:.....
Urtea:.....

HAZIEN EROSKETAREN ERREGISTROA ⁽⁶⁴⁾[illegible]

(64) Idatz behar dira hazien erosketak, eta kasu bakoitzean adierazi behar da zein egunetan erosi diren, espeziea (garia, garagarra, patata, etab.), barietatea (genetikoki aldatutako barietatea bada, GEO siglak idatzi behar dira), haziaren kategoria (hazi tratatua bada, tratamenduan erabiltzeko materia behar da), enpresa hornitzailearen izena, lotearen zenbakia (albaranean edo fakturan agertu ezean), eta zenbat erosi den. **Gorde behar dira, hiru urte, gutxienez, erosketen albaranak edo fakturak eta espezie, barietate eta kategoria bakoitzeko etiketa bat.**

HORIEN ORDEZ HORNITZAILEEN FAKTURAK JAR DAITEZKE, BALDIN ETA BERTAN DATU HORIEK GUZTIAK AZALTZEN BADIRA.

ONGARRIEN EROSKETAREN ERREGISTROA ⁽⁶⁵⁾

[illegible]

(65) Idatzi behar dira ongarrien erosketak, eta kasu bakoitzean adierazi behar da zein egunetan erosi diren, produktuaren merkatariza-izena, formulazioa, enpresa hornitzailearen izena eta zenbat erosi den. **Gorde behar dira, hiru urte, gutxienez, erosketen albaranak edo fakturak eta etiketak.**

HORIEN ORDEZ HORNITZAILEEN FAKTURAK JAR DAITEZKE, BALDIN ETA BERTAN DATU HORIEK GUZTIAK AZALTZEN BADIRA

Ustategiaren kodea:.....
Urtea:.....

PRODUKTU FITOSANITARIOEN EROSKETAREN ERREGISTROA ⁽⁶⁶⁾

[illegible]

(66) Idatzi behar dira produktu fitosanitarioen erosketak, eta kasu bakoitzean adierazi behar da zein egunetan erosi diren, produktuaren merkataritza-izena, materia aktiboa, erregistro-zenbakia, lote-zenbakia (albaranean edo fakturan agertu ezean), enpresa hornitzailearen izena eta zenbat erosi den. **Gorde** behar dira, hiru urte, gutxienez, erosketen albaranak edo fakturak eta etiketak.

HORIEN ORDEZ HORNITZAILEEN FAKTURAK JAR DAITEZKE, BALDIN ETA BERTAN DATU HORIEK GUZTIAK AZALTZEN BADIRA

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

EROSKETAREN ERREGISTROA / ABEREEN JAIOTZA

Alta-data	Espeziea (67)	Identifikazioa (68)	Abereen mugimenduen erregistro orokorreko zenbakia	Jatorria (69)

(67) Adierazi behar da zein animalia-espezie den.
(68) Abereen identifikazioa (belarritakoaren, lotearen zenbakia).
(69) Zehaztu behar da aberea nondik etorri den. Erositakoa bada: jatorriko ustiategiaren kodea; ustiategian jaio bada: "jaiotza" idatzi.
Gorde behar dira, hiru urte, gutxienez, erosketen egiaztagiria.
ERREGISTRO HORREN ORDEZ AZPIUSTATEGIETAKO UKUIL U-LIBURUAN DAGOKION ERREGISTROA JAR DAITEKE.

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

PRODUKTU ZOOSANITARIOEN EROSKETAREN ERREGISTROA ⁽⁷⁰⁾
(sendagai-pentsuak barne)

[illegible]

(70) Iatzi behar dira produktu zoosanitarioen erosketak, eta kasu bakoitzean adierazi behar da zein egunetan erosi diren, produktuaren merkataritza-eremua, enpresa hornitzailearen izena, lote-zenbakia (albaranean edo fakturan agertu ezean), zenbat erosi den, zein animalia-espezie-tarako den, eta zein den euren errezeta-zenbakia. **Gorde behar da ustiategian, bost urte, gutxienez, errezetaren kopia.**

Goede behar dira, hiru urte, gutxienez, erosten albaranak edo fakturak eta etiketak.

HORIEN ORDEZ HORNITZAILEEN FAKTURAK JAR DAITEZKE, BALDIN ETA BERTAN DATU HORIEK GUZTIAK AZALTZEN BADIRA

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

**ABEREAK ELIKATZEKO PENTSUEN ETA BESTELAKO PRODUKTUEN EROSKETEN
ERREGISTROA ⁽⁷¹⁾**

[illegible]

(71) Idatzi behar dira abereak elikatzeko pentsuen eta bestelako produktuen erosketak, eta kasu bakoitzean adierazi behar da zein egunetan erosi diren, produktuaren merkataritza-izena, enpresa homitzailearen izena, lote-zenbakia (albaranean edo fakturan agertu ezean) eta zenbat erosi den.

(72) Zehaztu behar da zein abere-motari emango zaion pentsum: ardi-azienda, esnetarako behi-azienda, hegaztia, etab.; eta bera jasoko duten abereen lotea edo taldea.

Gorde behar dira, hiru urte, gutxienez, erosketen albaranak edo fakturak eta etiketak.

HORIEN ORDEZ HORNITZAILEEN FAKTURAK JAR DAITEZKE, BALDIN ETA BERTAN DATU HORIEK GUZTIAK AZALTZEN BADIRA

EROSKETEN ERREGISTROA

PRODUKTUEN ETA AZPIPRODUKTUEN ERABILERA ETA
IRTEERA

ABEREEN IRTEERA ETA HILDAKOAK KENTZEA

Ustategiaren kodea:.....
Urtea:.....

NEKAZARITZAKO PRODUKTUEN SALMENTEN ERREGISTROA

Bertako uzta zuzenean saltzen bada.

[illegible]

(73) Adierazi behar da zein produktu-mota den: garia, garagarra, patatak, erremolatxa, piperrak, urazak, etab.

(74) Zehaztu behar da saldutako produktuaren azken destinoa zein den, eta horrekin batera bera jasoko duen enpresaren edo ustategiaren izena.

GORDE BEHAR DIRA, HIRU URTE GUTXIENEZ, SALMENTEN EGIAZTAGIRIAK

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

ABEREEN IRTEERAREN ERREGISTROA

Irteera-data	Espeziea (75)	Identifikazioa (76)	Destinoa Kudeatzaille baimendua (77)	Abereen mugimenduen erregistro orokorreko zenbakia edo gorpua jaso izanaren albarana

(75) Adierazi behar da zein abere-espezie den.
(76) Aberearen identifikazioa (belarritakoaren, lotearen zenbakia).
(77) Zehaztu behar da animaliaaren azken helmuga: hiltegia, helmugako ustiategiaren kodea, gorpuen kudeatzaille baimendua.
Gorde behar dira, hiru urte, gutxienez, horren egiaztagiria.
ERREGISTRO HORREN ORDEZ AZPIUSTATEGIETAKO UKUIL U-LIBURUAN DAGOKION ERREGISTROA JAR DAITEKE.

USTIATEGIAN BERTAN LORTUTAKO PRODUKTUEN ERABILERAREN ERREGISTROA

[illegible]

Ustategian bertan lortutako produktuak erabiltzen badira bete behar da orri hau (autokontsumoa).

(78) Zehaztu behar da zer produktu erabili den (haziak, artoa, bazka, belar ondua, zereala, etab.).

(79) Zehaztu behar da zertarako erabiltzen den produktua (lursailetarako, hazien kasuan; abereak elikatzeko, abere-mota zehaztuta; etab.).

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

BAIMENDUTAKO EROSLEEI BEHI-ESNEA EMAN IZANAREN ERREGISTROA (80)

Emate-data	Tiket- edo albaran- zenbakia	Esne-kopurua (litroak)	Operadorearen IFK	Q letrako kodea	Zisternaren kodea	Laginen hartualdia

(80) Idatzi behar da egunez egun zenbat esne eman den, operadorearen IFK, Q letrako kodea eta zisternaren kodea; eta adierazi behar da ea analisietarako laginik hartu den. Erantsi behar dira emate-egiaztagiriak, eta laborategiak igorritako analisien emaitzak.
HORREN ORDEZ EMATE-TIKETAK EDO -ALBARANAK JAR DAITEZKE, BALDIN ETA BERTAN DATU HORIEK GUZTIAK AZALTZEN BADIRA; HALA BADA, EMATE-DATA ETA TIKET- EDO ALBARAN-ZENBAKIA BAINO EZ DIRA IDATZIKO (tiketak edo albaranak gordeta).

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

BAIMENDUTAKO EROSLEEI ARDI- EDO AHUNTZ-ESNEA EMAN IZANAREN
ERREGISTROA ⁽⁸¹⁾

Emate-data	Tiket- edo albaran- zenbakia	Esne-kopurua (litroak)	Eroslearen IFZ/IFK	Agiriaren zenbakia

(81) Idatzi behar da egunez egun zenbat esne eman den, tiket- edo albaran-zenbakia, operadorearen IFK, eta emate-agiriaren zenbakia. Erantsi behar dira eguneroko emate-egiaztagiriak, eta laborategiak igorritako analisien hileroko buletinak.
HORREN ORDEZ EMATE-TIKETAK EDO -ALBARANAK JAR DAITEZKE, BALDIN ETA BERTAN DATU HORIEK GUZTIAK AZALTZEN BADIRA; HALA BADA, EMATE-DATA ETA TIKET- EDO ALBARAN-ZENBAKIA BAINO EZ DIRA IDATZIKO (tiketak edo albaranak gordeta).

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

**BEHIEN, ARDIEN EDO AHUNTZEN ESNEAREN ETA ESNEKIEIEN BAIMENDUTAKO
SALMENTA ZUZENEN ERREGISTROA**

[illegible]

(82)	Zehaztu behar da ea behi-esnea, ardi-esnea ala ahuntz-esnea den.
------	--

(83) Zehaztu behar da zer produktu den: gazta, gatzatua, jogurta, gurina...

(84) Zehaztu behar da zenbat saldu zaien norbanakoei eta establezimenduei.

GORDE BEHAR DIRA, HIRU URTE GUTXIENEZ, SALMENTEN EGIAZTAGIRIAK

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

HONDAKINEN IRTEERAREN ETA KUDEAKETAREN ERREGISTROA

[illegible]

(85) Idatzi behar da zerenak diren suntsitu beharreko hondakin horiek: ongarrienak, produktu fitosanitario edo zoosanitarioenak, albaitaritzako sendagaienak, ontzienenak, plastikoenak, artilearenak, esnearenak edo arrautzenak, inkubazioenak, etab.

(86) Idatzi behar da albaran-zenbakia baldin eta hondakinak enpresa kudeatzaile batek kendu baditu. **Albarana gorde behar da.**

TRATAMENDU ZOOSANITARIOAK ABEREEN KONTROLAK ETA ANALISIAK

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

TRATAMENDU ZOOSANITARIOEN ERREGISTROA

Albaitaritzako sendagaiak, sendagai-pentsuak,

bestelako tratamenduak edo txertoak, produktu indartzaileen asoziazioa

[illegible]

(87) Zerbaki korrelatiboak jarri behar dira egindako tratamenduetan.

(88) Errezeta-zenbakia, (79) puntuan zehaztutako moduan.

(89) Aberearen banakako (belarritakoaren zenbakia) edo lotearen identifikazioa; eta lotearen kasuan, zenbat aberek osatzen duten lote hori.

(90) Administratzeko modua:

A.: ahotik

T.: topikoa
Lp.: larruazalpean

Mb.: muskulu barnean

Ezk-aur.: ezker-aurrealdeko errape-laurdenaren barnean

Esk-atz.: eskuin-atzealdeko errape-laurdenaren barnean

rape-laurdenaren barnean

Ub.: umetoki barnean

Ezk-atz.: ezker-atzealdeko errape-laurdenaren barnean

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

ANALISI ZOOSANITARIOAK

(klinikoak, hondakinak.)

[illegible]

(91) Zehaztu behar da zein lagin-mota analizatu den: odola, esnea, gernua, ilea.		
--	--	--

(92) Tratamenduko aberea zein espezietakoa den eta beraren identifikazioa.

(93) Azaldu behar da zergatik egin den analisia: gaixotasun-zantzuak, ohiko kontrola, Hondakin Plan Nazional Integratua.

(94) Erantsi behar da analisisen emaitzen kopia.

ABELTZAINZAKO USTIATEGIAK

MANTENTZE-LANA

GARBIKETA

DESINFEKZIOA

INTSEKTU-HILTZEA

ARRATOI-HILTZEA

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

INSTALAZIOEN ETA EKIPOEN BERRIKUSKETA ETA MANTENTZE-LANA

[illegible]

(95)	Adierazi behar da berrikuspena ala mantentze-lana den, zein izan den matxura, etab. Jezteko makina bada edo esnea hozteko tanga bada, erantsi behar da ekipo horien berrikuspenaren fitxa.
------	---

(96) Zehaztu behar da zein ekipo berrikusten den (marka eta modeloa).

Ustiategiaren kodea:.....
Urtea:.....

EKIPOEN ETA INSTALAZIOEN GARBIKETA, DESINFEKZIOA, ETA INTSEKTU- ETA ARRATOI-HILTzea

[illegible]

(97) Zehaztu behar da garbiketa, desinfekzioa edo intsektu-eta arratoi-hiltzea den.

(98) Zehaztu behar da non egin den. Toki oso bat ez bada (ukuillua), jardute-eremuaren krokisa erantsi behar da.

(99) Nork egin duen jardutea. Erantsi behar da horren albarana edo faktura, ustiategitik kanpoko enpresaren batek eginez gero.

HORREN ORDEZ JAR DAITEKE USTATEGIAREN HIGIENE-PLANA GAUZATZEKO ORDUAN EGINDAKO OHARREN KOPIA, BALDIN ETA DATU HORIEK GUZTIAK AZALTZEN BADIRA.